

Miranda pasealekuko ur parkea zabalik ostiraletik aurrera

Miranda pasealekuko ur parkea berriro ere zabalik egongo da maiatzaren 17tik aurrera. Joan zen astean elementuak berrezartzeko lanak bukatu ostean, berriro ere martxan jarriko da haur eta familientzako hain baliagarria den parkea.

Ur parke hau oso baliagarria da batik bat Andoaingo haur eta gazteentzat uda garaiko beroei aurre egin ahal izateko modu dibertigarri batean. Beraz, herriko familiek beste urtebetez zerbitzu hau eskura izango dute nahi dutenean erabili ahal izateko.